

# Zure lan-bizitzaren txostena

# Zure lan-bizitzaren txostena

Ian-bizitzaren zure txostenean, Gizarte Segurantzako erregimen desberdinetako alta eta baja egoera guztiak kontsulta ditzakezu eta altan egon zaren egun kopurua.

Importass-en bidez, zure txostena PDF formatuan ikus eta deskarga dezakezu, osorik edo aldika edo enpresaka mugatuta.

Gainera, zure txostenean akatsen bat atzematen baduzu, datuak eranstea edo aldatzea eskatu ahal izango duzu

## Nola lor dezaket lan-bizitzaren txostena?

1

Deskargatu Gizarte Segurantzako Importass aplikazioa [Google Play Store-n](#) edo [App Store-n](#)



2

Identifika zaitez bitarteko hauetako edozeinekin:



Cl@ve  
Iraunkorra



Cl@ve  
Mugikorra



SMS  
bidez



Ziurtagiri  
digitala

3

Bilatu "Zure lan-bizitza" atala.

4

Sakatu "Ikusi lan-bizitza osoa"

5

Kontsultatu Gizarte Segurantzaren altan egon zaren denbora eta iragazi enpresaren edo dataren arabera.

6

Sakatu "Deskargatu lan-bizitza", izendatu fitxategia eta, deskargatu ondoren, eskuragarri egongo da "Dokumentuak" atalean, behar duzunean kontsultatzeko



## Ezagutu zure eremu pertsonala Importassen eta...

- Gizarte Segurantzaren zure Zenbakia ziurtatzen duen dokumentua deskargatu ahal izango duzu.
- Zure datu pertsonalak, harremanetarako datuak eta helbidea eguneratu ahal izango dituzu.
- Gizarte Segurantzako zure egoera egiaztatu ahal izango duzu.
- Zure abisuak kontsultatu ahal izango dituzu.
- "Dokumentuak"era zure txostenak eta ebazpenak ikusteko sartu ahal izango zara.
- Zure izapideak egin ahal izango dituzu.



## Sartu Gizarte Segurantzaren Importass aplikazioan eta espazio bat izango duzu...

- Edozein gailutatik nabigazio errazekoa.
- Hizkuntza argiarekin, unean-unean behar duzuna aurki dezazun.
- Zuri egokitua, informazio pertsonalizatuarekin.
- Nondik zure txostenak deskargatu, online izapideak modu errazean egin eta informazioa kontsultatu.



Deskargatu app-a.  
Egin zure mugikorraren bidez izapideak  
eta kontsultatu informazioa



Sartu Importass-en,  
Diruzaintzaren Atarian,  
**portal.seg-social.gob.es**  
atariaren bidez  
edo eskaneatu honako QR hau:



Jarraiguazu hemen X

**Información TGSS**

X @info\_TGSS